

ZURE ESKU DAGO HAU- RRARI ONENA EMATEA ESNEA DA ZURE HAURRAREN- TZAKO ELIKAGAIRIK ONENA



ARRAZOI ZURE HAURRARI BULARRA EMATEKO

AMAGANDIKO EDOSKITZEA HONEKIN LORTZEN DA:

- 1 Atopia, alergiak eta asma izateko arrisku gutxiago.
 - 2 Diabetesa izateko arrisku gutxiago.
 - 3 Minbizia izateko arrisku gutxiago.
 - 4 Bat-bateko heriotza gertatzeko arrisku gutxiago.
 - 5 Gaixotasun zeliakoa izateko arrisku gutxiago.
 - 6 Infekzioak izateko arrisku gutxiago.
- ### AMARENTZAKO ABANTAILAK
- 7 Erditu ondoko hemorragien arriskua gutxitzen da.
 - 8 Harreman afektiboa handitzen da.
 - 9 Eskuragarri, higieniko eta ekonomikoa.

Oso garrantzitsua da gorputz-jarrera egokia hartzea, eta haurrak bularrari ondo heltzea. Titiburuetako mina eta erroitzak jarrera eta heltzeko modu desegokiaren ondorioz izan daiteke. Eska ezazu laguntza zalantzarik gabe, era desegokian ari zarela uste baduzu.

JARRERA EGOKIA



BULARRA MODURIK EGOKIENEAN EMATEKO GOMENDIOAK

- Lehenengo hartualdiaren hasiera: erditu eta berehala.
- Eskariaren arabera edoskitzea: emaiouzu bularra zeure haurrari eskatzen duen guztietan, ordutegi hertsirik gabe eta nahi adina denbora, askotan eskatzen badu ere.
- Txupeteak eta tetinak eragozpen bihurtzen dira edoskitzen ikasteko prozesuan. Ahal dela, ez erabili lehenengo egunetan.
- Emaiouzu bular batetik haurra ase arte, eta, ondoren, bestea eskaini. Husten ez badu ere, ez kezkatu; hasi hurrengo hartualdia beteago dagoen bularretik.
- Bizitzaren aurreneko 6 hilabeteetan, amaren esnea bakarrik hartuta elika daitezke haurrak.
- Seigarren hilabetetik aurrera, janari osagarriak sar daitezke eta bularra ematen jarraitu.
- Edozein emakumek eman dakiok bularra bere haurrari, bularren tamaina eta titiburuaren tankera edozein dela ere.
- Bularra emateak ez du hondatzen ez gorpuzkerarik ez bularrik; erditu ondoren bizkortzen laguntzen du.

EGOKIA



EZEGOKIA



Ospitale honetan badugu arautegi bat haurrari bularra emateko daukazu eskubidea bultzatu eta babesten duena



Osakidetza

DONOSTIA OSPITALEA

